

Sarrera

Lehendabiziko alearekin batera, orain-
goz, 1991. urtearen bukaerarako sei
zenbaki ateratzeko konpromezua hartu-
ko genuela esaten genuen. Epe hori iga-
rota eta harrera ebaluatu ondoren, orduan
hitzegin ahal izango dugu gure harpide-
dunekin aldizkariaren geroaz.

Hurrengoak hurrengorako utziz, be-
raz, denboraldi honetan gogotsu saiatu
nahi dugu leku bat irabazten talde maila-
ko erreflexioen beharra ikusiz material
didaktiko baten premia somatzen dute-
nen artean.

Eta bigarren zenbaki honen orriotan,
euskarazko irakaskuntza arrakastatsua-
go suerta dadin oso kontutan hartzekoak
diren erreflexio asko aurkituko ditu ira-
kurleak: norberaren baitako eta eskola-
bizitzako partaideen arteko hausnarketa-
ri bide emateko balio dezaketen eritziak,

barneratu ondoren ekintza kolektiboari
bide egin diezaioketen proposamenak.

Ez da errezeta magikorik eskeintzen,
kezkatua denak ondo asko daki halako-
rik ez dagoela.

Zenbaki honetarako, itzulpen bat da-
karkizuegu zatirik luzeenean eta hiru iri-
tzi-artikulu labur jarraian. Itzulpenak,
katalaneraren lurraldeetako (País Valen-
cià, bereziki) eskola-esperientziatik
abiatuz, beste edozein hizkuntza mino-
rizaturen kasuan aplikagarri izan daite-
keen teorizazioa eskeintzen du, testu
aukeraketa eta lan-proposamen konkre-
tuak bame. Eritzi artikuluetan, bestalde,
euskeraren egoeratik abiatuta, erabilera-
ren suztapenerako baliagarri izan daitez-
keen proposamen praktikoak egiten dira.

Zeuk esango ea erabilgarri zaizkizun!